

Txotx garaiko busak Astigarraga erdian ez sartzeko eskatzen dute

BIZILAGUNAK KEXU DIRA GOIZEKO ORDU TXIKIETAN EGITEN DUTEN ZARATA DELA ETA

Hori eta beste zenbait arazo konpontzeko lanean dabil dagoeneko sagardotegi garaiko jarraipen mahaia

AINARA HERNANDO

ASTIGARRAGA. Txotx garaian bisitariak eramaten dituzten autobusek agian ezingo dute aurten Astigarragako erdigunean sartu. Hori da txotx garaiko batzordeak erabaki beharko duen galetako bat, bizilagunen eragozpenak ekiditeko asmoz.

Antton Getaria tabernariaren ordezkariak azaltzen duenez, "autobusek ordu bat jartzen dute ekaritzen duten jendea jasotzeko, baina erdigunean egoten dira haien zain motoreak piztuta eta bizilagun asko molestatu egiten dio. Zain egon daitezen leku egoki bat bilatzen saiatzen ari gara. Poligonoetan bada lekua, baina pixka bat urrun geratzen da".

Nerea Ollokiegik Udalaren eta herritarren arteko zubi lana egiten du sagardo boladako jarraipen mahaian: "Bizilagun asko kexu dira zarata dela eta. Koadrilak autobusetan etortzen dira eta goizeko 4.00etan jendearen bila herrian sartzen direnean eskandalu handia sortzen da. Pentsa 60 bat lagunek igo behar dutela autobusera, eta iskanbila ziurtatuta dago. Bizilagunen eskaera herrian ez sartzea da".

JARRAIPEN MAHAIA "Txotx boladak hainbat arazo sortzen ditu herrian, eta horiek konpontzea ez da erraza, horregatik biltzen gara", esan du Bixente Arrizabalaga, Astigarragako alkatea.

Herriarentzako garai garrantzitsua bada ere, bizilagunei eragozpenak sortzen dizkie jendearen iriste masiboak. Horiek konpontzen saiatzeko sortu zen legislatura hasieran txotx garaiko batzordea.

Alkateak azaltzen duenez, "herriko erdigunea da traba gehien izaten dituen, kale Nagusia eta Joseba


Barandiaran plaza ingurua". Udalarentzako ere gastu gehigarri bat suposatzen duela dio: "Garbitasuna mantentzeko zerbitzua handitu behar da, udaltzainen brigada gehitu behar da...".

"Txikizioak ere egoten dira herrian -jarraitzen du Arrizabalagak-. Baina bizilagunen ezinegonak kezkatzen gaitu gehien. Oreak bilatu behar dugu jendeak ondo pasatzeko eta lo egin nahi duenak ere hala egiteko aukera izan dezan".

Ollokiegik dioenez, "pixak eta pixak ez direnak topatzen dituzte astigarrak kaleetan, eta arreta gehiagorekin garbitzeko eskatu zaio hortaz arduratzen den enpresari". Iaz autobus publikoa jarri zuten gau osoan zehar: "Ez genuen asko iragarri, baina pila bat erabili zen, eta herrian sartzen ez den autobusa da. Aurten zerbitzu hori existitzen dela azpimarratzen saiatuko gara", dio Ollokiegik.

ORDUTEGIAK Taberneak ordutegi luza-pena izaten dute sagardo boladan. Antton Getaria tabernariak azaltzen duenez, "Eusko Jauriaritzari egiten diogu eskaera, eta 4.30ak arte ematen digu baimena. Udalak, ordea, 4.00ak arte zabalik egoteko baimentzen digu. Aurten agian utziko digute ordu erditxo hori gehiago, baina, noski, ulertu behar da lasai bizi nahi duten herritarrek ere badaudela".

Ollokiegiren ustez, "txotx garaia prestatzeko bileretan asko jaitsi da bizilagunen parte-hartzea. Lehenengo urtetan ugaria zen, baina gauzak lortzen joan diren neurrian asko gutxitu da. Eta herritarren parte-hartze hori ezinbestekoa da, guztion ardura baita egoera behar bezala kontrolatzea".



Astigarragako sarreran dagoen sagardo upela. ARGAZKIA: A.H.

Sagardoa dastatzen ikasteko heziketa

Nerea Ollokiegiren iritziz, "heziketa arloa ez da umeentzako bakarrik, eta sagardo egilearen konpromisoa eskatzen dugu edatera doan jendea heziteko, sagardoa dastatu egin behar baita sagardotegietan". Jose Mari Alberro Sagardun partzuergoko kidea da. Berak dioenez, "sagardogileok kartel batzuk jartzea proposatu dugu, adierazteko zein kopuru edanda ez den komeni kotxea hartzea. Dastatze gidatuak, formazioa... Hainbat gauza egin daitezke jendea kontzientziatzeko. Izan ere, kontua ez da sagardoa edatea eta edatea zentzurik gabe, dastaketa ere badago". Mezu hori helarazi nahi dute, baina erraza ez dela dio Alberrok: "Esfortzu handiagoa egingo dugu, baina ezin dugu banan-banan jendeari aholkuak ematen ibili". Jendea sagardotegietatik lehen bait lehen jaitsea irtenbide apropos ikusten du Sagarduneko kideak: "Lehenengo ohiturara bueltatzea komeni litzateke, hau da, sagardotegian 20.30etik 23.30ak arte egotera, gutxi gorabehera. Orain bi txanda egiten dira eta jendea oso berandu jaisten da gero tabernetara. Ahalegindu behar dugu afaltzera etortzen direnak gauerdiko aldera kanpoan egon daitezen". >A.H.

Herriarentzat garai garrantzitsua da, baina jendetzak bestelako eragozpenak ere sortzen ditu kaleetan